



ko kostatzen zitzauden ideiak euskaraz azaltzea». Egun batzuk besteak baino hobekiago izaten direla diote. «Batzuetan, etsita joaten gara Maiterengana, ez gara aurrerapenik egiten ari esanez», esan du Fuertesek. «Alde horretatik, lehen urratsak atseginagoak dira, aurrerakadak handiagoak direlako. Ikasketa prozesuak bere gorabeherak ditu, eta hori onartzea kostatu egiten da batzuetan», uste du Albenizek. Ikasleei animoak ematea askotan tokatzen zaiola esan du Lardizabalek; alabaina, irakasle lanik ez duela egiten azaldu du. «Gaizki esaten dituztenak zuzentzen dizkiet, baina galdetzen badidate zergatik dagoen gaizki, ez dut jakiten azalpena ematen».

Fuertes esanetan, batzuetan nagitasun pixka bat ematen die astelehena iritsitakoan Goierriako bidea hartzeak. «Baina luxu bat da hemen egoteko aukera izatea». «Bai, pribilegio bat da. Euskaraz ikastea bakarrik da gure lana, ez dugu erosketarik egiten, ez garbiketarik... Gainera, baserria bera ere zoragarria da, izugarriko bistak ditu», gaineratu du Albenizek.

Gosaria 08:00etan izaten da Aldarretan, 09:00etan hasten baitituzte eskolak Maizpiden. Bazkaldu Lazkaon egiten dute ikasle guztiek, euskaltegian bertan lo egiten dutenekin batera, eta, arratsaldean, berrin izaten dituzte eskolak, 18:30ak arte. Horiek amaitutakoan itzultzen dira baserrira. Eta 20:00etan izaten dute afaria. «Oso ondo jaten dugu hemen», nabarmendu dute bietan behin baino gehiagotan. Tertulia pixka bat egiten dute afaletan, eta handik bakoitza bere gelara. Etxean ere izaten dute zereginik ikasleek: «Idazlanak...», egin dute hasperen bietan.

Aitortu dute noizbehinka izaten dutela elkarrekin gaztelaniaz hitz egiteko tentazioa. «Hasieran, errazagoa zen euskaraz hitz egitea, baina, denborarekin, gure arteko harremana ere estutu egin da, eta gauza sakonagoak kontatu nahi dizkiogu elkarri. Edo arazoren bat dugunean ere batzuetan esaten dugu: 'hau gaztelaniaz azalduko dut'». Une horietan, elkar animatzea tokatzen dela kontatu dute, elkar euskaraz hitz egitera bultzatzea.

Baserritatean, lehenaldiz

Ikasleetako askorentzat baserritatean egonaldi bat egiten duten lehen aldian izaten da. Hala da Fuertesentzat eta Albenizeentzat ere. «Niri asko gustatzen zait baserririko bizi modua», dio Fuerte-

Tradizio luzeko programa Lazkaon eta inguruan

+ 1974an hasi zen Lazkaoko Maizpide euskaltegia udako ikastaroak antolatzen, eta, hasierako urte haietan, herritarren etxeetan egiten zuten lo ikasleek, familia euskaldunetan. 1988an ireki zuten barnetegia, eta 2000-2001eko ikasturtera arte mantendu egin zuten udak familietan igarotzeko aukera hori. Ordutik, urte osoan zehar egoten da martxan programa. «Hizkuntza bizia» irakastea edo horretarako bidea ematea da helburua, besteak beste, ikasleek egoera naturaletan sortzen diren elkarrizketak ulertzeko gaitasuna lortzeko, ikus-tekoeuskarategian ikasitako eguneroko harremanetan erabiltzeko gai direla eta euskaltegiko hizkuntza ereduez gain beste batzuk ere jartzeko ikasleentzako eskura.

sek. *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*-eko protagonistak baserriko lanetan ere laguntzen zuten, baina etxean hartu izan dituzten pertsonak, oro har, ez dutela baserriko bizi-moduarekiko interes handirik izaten kontatu du Lardizabalek. Behiak dituzte baserrian. «Bizkaiko mutil bat eduki genuen

behin, eta hura ukuilura joan gabe ez zen inoiz euskaltzera joaten. Beti berandu iristen zen, baina lortu zuen EGA ateratzea».

Anekdotak moduan, Fuertesek kontatu du ez zekiela bere logelaren azpian zegoen ukuilua. «Aurretik beste ikasle bat egon zen logela horretan, eta gauez zarratak entzuten zituela esaten zuten. Esaten genion armaiuraren edo izango zela, egurrezkoa zelako. Baina ni joan nintzenean gela horretara ikusi nuen ezetz, ez zela armaiurarena. Eskerrak esan zidaten ukuilua zegoela behean, mamauk zeudela pentsatzen hasita bainengoan». Kalekume hutsak direla esaten die Lardizabalen senarrak. «Eta arrazoiak dauka».

Lardizabalek eta Albenizek ikusia dute eleberrian oinarritutako filma. «Polita iruditu zitzaizdan, barre pixka bat egin nuen. Hala ere, errealitatek urrun dago. Hauek beste era batera ibiltzen dira, zapatak asko zikindu gabe», esan du bi ikasleei begiratu. «Pelikulakoez, gainera, oso ondo hitz egiten zuten», nabarmendu du Albenizek. Alde horretatik, ez dagoela alderdik esan die etxeko ugazabak. «Zuek ere oso ondo egiten duzue. Hemen euskaraz ikasten egon diren batzuk euskaraz irakasleak dira gaur egun». «Ea ba guk ere lortzen dugun, horixe da gure helburua», erantzun diote ikasleek.

Etxebila
higiezinak

Etxebila
inmobiliaria

ALOKAIRUAN

PASAI DONIBANE 3 logela, sukalde-jangela, egongela eta bainugela. Igogailua. 2 Balkoi. 780€
PASAI DONIBANE Baserria herrian. 5 logela, sukalde, egongela, 2 bainugela. Terrenoa. 1.400€
PASAI ANTZO Zentroan apartamentua. Logela, egongela, sukalde eta bainugela. Igogailua. 650€
LOIOLA 2 Logela, egongela, sukalde eta bainugela. Igogailua. 750€.

SALMENTAN

AMARA Armerien plaza. 70 m². 2 logela, sukalde, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. Berritua. 343.000€
AMARA Isabel IIaren hiribidea. Atikoa. 83 m². 3 logela, sukalde egongela, 2 bainugela. Igogailua. Berritua. Oso argitsua. 298.000€
AMARA Madrid hiribidea. 78 m². 3 logela, egongela, sukalde, 2 bainugela. Terraza hegoaldea. Berrituko. 345.000€
AMARA Madrid hiribidea. 4 logela, sukalde, egongela, 2 bainugela. Berrituko. Terraza. 379.000€
LARRATXO 70m². 3 logela, sukalde, egongela, bainugela. Berogailua. Balkoia. Eguzkia. Igogailua. Berrituko. 130.000€
ERRETERIA 75 m². 3 logela, sukalde, egongela, bainugela. Igogailua. Balkoi handia. Berritua eta eguzkitsua. 180.000€
LASARTE Urte gutxiko eraikina. Zentroan. 2 logela, egongela handia, sukalde eta bainugela. GARAJE itxia. 270.000€
TXOKOALDE 73 m²-ko DUPLEXa. 2 logela, sukalde-egongela eta 2 bainugela. GARAJE itxia. 250.000€

JATETXEA SALMENTAN

LEZON, HERRI ERDIAN. MUGIMENDU HANDIKO JATETXEA

GARAJEAK

INTXAURRONDO 45 m²-ko garaje itxia. 2 auto, motoa eta trastelekua. 48.000€
AMARA Anoetatik 2 pausora. Bi marrako aparkalekua. Igogailua. 21.500€

www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA



«Ikerkuntzak aurrera egiten badu, gazteen ekimenari esker egiten du»

Xabier Artola Zubillaga • EHUko irakaslea eta ikerlaria

EHUko Informatika Fakultatean irakasle aritu da oraintsu arte, eta ikerkuntzan jarraitzen du Ixa taldean. Uste du euskararen tratamendu informatikoan sakonduta pauso handia eman daitekeela normalizazioan.

Jon Miranda Alkiza

Bizitza erdia baino gehiago darama Xabier Artola Zubillagak (Donostia, 1957) Alkizan bizitzen. Urteko sasoi guztietan egoten da ederra inguruko parajea, baina urtaro bat aukeratu beharko balu, udaberria aukeraturiko luke berak, «maiatz hasierako berde gama zabal hori». Lengoaia kodetuaz harago, Artolak beste bitarteko batzuk baliatzen ditu inguratzen duen errealitatea azaltzeko. Hitza

eta irudia ditu gustuko, literatura eta argazkilaritza.

Donostiako Antigua auzoan sortu zinen. Giro euskaltzalea izan al zenuen gaztetan?

Eskola publikoan ibili nintzen ni, eta eskola frankista zen erabat. Hori bai, etxean euskara besterik ez genuen egiten. Oroitzapen bat badut: ama bila etortzen zitzaigula eskolara eta nik ez nuela nahi izaten amak guri euskaraz egitearik. Lotsa ematen zidan besteetan aurrean euskaraz bagenekiel

erakusteak. Gero, pixkanaka, euskara galduz joan nintzen, eta 15-16 urterekin erabaki nuen euskara berreskuratzea. Kuadrillan esaten zidaten: «Zu zara gure artean euskaraz dakiena». Horretaz jabetu, eta buelta ematen hasi nintzen. Orduan hasi zen euskararekiko nire pasioa.

Nolako prozesua izan zen euskaldun izateko hautuarena?

Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin nituen nik, eta guztiz prozesu autodidakta izan zen alfabetatzea.

Ikaskideei euskarazko eskolak ematen nizkien Antiguan, gaueskoletan eta *Informatika Eskola* deitzen zitzaionean. Neroni hasi nintzen nekien gutxia besteei irakasten eta neroni ikasten. Gogoratzen dut Azkueren morfologia-ren hiru tomoak oso-osorik irakurri nituela. Ikastaro batzuk ere egin nituen. Xalbador Garmendiak eman zuen ikastaro bat dut gogoan: EUTGn izan zen, euskal aditzaren ingurukoa. Jose Ramon Etxebarriak eman zuen beste

ikastaro batean ere parte hartu nuen.

Zergatik erabaki zenuen informatika ikasketak egitea?

Gure etxean dirurik ez zegoen ikasketak ordaintzeko, eta Donostian zeuden aukeren artean hori hautatu nuen, zergatik oso ondo jakin gabe. Anekdotak gisa esan dezaket Informatika ikasketak bukatu nituela eskolan bertan ordenagailu bat ukitu gabe. 1979. urtea zen. Garai hartan, ordenagailuei *cerebros electrónicos* esa-